

Odieta



Aurkibidea

Udalerria: Odieta

Sarrera



Iruñeko merindadearen iparraldean kokatzen da. Anotzibar, Erripa (herriburua), Gaskue, Gelbentzu, Gendulain, Latasa, Ostitz eta Ziaurritz herriek osatzen dute. Argazkian Ziaurritz ([wikipedia](#)).

- **Biztanleak:** 338
- **Euskaldunak:** %23,96

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **29**
- Transkribatutakoak: **16**
- Audioak: **17**
- Bideoak: **12**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Modesto Arze Muskiz (1922)

Gaskuen (Odieta) jaio zen 1922an. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Eltzaburukoa (Ultzama).

Francisca Doncel Zalba (1896)

Odietako Anotzibar herrikoa. Ama Sarasibarkoa (Esteribar) zuen eta aita Larraintzarkoa (Ultzama), baina amaren lehen senarra eta izan zituzten lau umeak Anotzibarren jaioak ziren.



Martin Elizondo Aragon (1922)

Odietako Latasa herrikoa. Gurasoak ere Odietakoak zituen, aita Latasakoa bertakoa, eta ama Ziaurritz herrikoa.

Eusebio Iraizoz Villanueva (1913)

Odietako Gaskue herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Ultzamako Alkotz herrikoa.

Ignacio Larraia Etxaide (1904)

Odietako Ziaurritz herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, baztandarra, Almandozkoa.

Pedro Oiarzun Orkin (1925)

Gelbentzun (Odieta) jaio zen 1925ean. Ama bertakkoa zuen eta aita, berriz, Beuntzakoa (Atetz).

Luis Urtasun Pagoto (1904)

Erripan (Odieta) jaio zen 1904an. Aita Gaskuekoa zuen eta ama, berriz, Muskizkoa (Imotz)

Martin Zenoz Elizondo (1902)

Latasan (Odieta) jaioa 1902an. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Labaiengoa (Malerreka).

Mariano Ziganda Ostitz (1910-2010)



Gelbentzun jaio eta sei urterekin Odieta udalerriko Latasara jaitsi zen eta herri honetan bizi da. Ehun urte beteta elkarrizketa egin zenean. Ezkongabea. "Ermitaño" ibili zen bost urtez, irudi batekin Karraskaletik Beraraino, etxez etxe, bizikletan hasieran eta motorrean gero. Herriz herri kinkailla saltzen hogeita zazpi urtez motorrean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Txerriak hazi etxeko tabernarako eta saltzeko

- **Hizlaria(k):** Ziganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** ODI-001/005
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Taberna izan zuten etxean, anaiak eta koinatak eramaten zuten. Txerriak hazi eta magrak prestatzen zituzten tabernan, eta gainerako puskak inguruko herrietan saltzen zituzten.

Transkripzioa

Nere koiñatak —ni solteroa naiz— ta anaie ezkondu itxera. Ta ez zuen iñok eman nahi tabernik, eta, [eman nuen]. Itxe hartakoa zen, hor... hara ezkondu zen. Ta gero berak, neonek hartzean erran zion senarrak [...]. Joe, kontentu. Ta gero [parrokik hor] egin giñuen. Hasi giñen (e)maten magrak.

Txerriek eta erosten nituen neonek, todo. Ta anaiek “mata letxona”, harek hiltzen zituen denak, ta magrak itxerako ta besteak herri horietan, Lizaso, Larraintzar, ta.. denak saltzen nituen segidoan.

1.2. Iruñeko feriara, oinez

- **Hizlaria(k)**: Larraia Etxaide, Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ODI-004/001
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Iruñera oinez sarri joan izan dela dio. Baita feriara ere, aberearekin.

Transkripzioa

- Iruñera joan izan zara oinez?
- Ba, aunitz aldiz!
- Nondik?
- Anotzen barna... Makirriäin ta polborin.
- Hara, e?
- Polborin, tzuzen-zuzena emendik; e... iru, zazpi kuarto, kuarto... ordu.
- Bai? zazpi kuarto ordutan?
- Bai, ah, gainberetan laxterka, e? Makirräindik Anotza? ordu erdie, ta Anoztik, emen, bezte ordu erdie?... eskasa.
- Eta aberearekin joan izan zara inoiz?
- Bait ere! baita feriera ere, idieki, bai.
- Eta nolakoa zen feria hura?
- Pues, orduen? bazen gaitze Ostitzen, ta... kutsetzeko bia-, kutsetzeko beldurre bazen, ta Beltzuntzen barna yoan Iruñera, San Migel egunëan, ielki, bai, aittaki.
- Sanferminetako feriara?
- San Migel! badu e bezte ferie bat; San Migel egunian? bertze pet ze... ferie bakarra egiten tzen-da Iruñen.
- Eta zer eramaten zenuten?
- Abriak, idiek, tzokorrak... aratxiak, denetaik...
- (Berriemailearen lagun bat:) Beiak...
- Eta jendea zer, leku askotatik etortzen zen?
- Nafar, Nafar guzietaik, bai; Roncal, val Roncal ta val de Goñi te... ta guzietaik!
- (Laguna:) Sí, sí, sí; Etxarren ¿conoces?
- Bai, bai, Irurtzun ondoan; eta ongi saltzen zenuten?
- Ah, denetaik, guk; saldu gabe itxea karri're bai...
- Eta sanferminetan egiten den feria, zuk ikusi duzu?
- E?
- Erraten dute valenziano aunitz etortzen dela eta...
- Aunitz, peño lenao izeten tzen iru egunez, ferie ori, sanpermiñetan, ta orai e(z), egunez bakarra izeten da, San Peñi egunian.
- (Laguna:) Sí, ahora... ahora la feria se hace, se hace todos los días se hace, en casa y donde quiera.
- Semia juan tzen aurten ere, San Fermiñ egunian, bazkaizik ya torrie zen,

beño, erran tziren, aixkide bat baduu, tratante bat eta...
- Axier bat? (gaizki ulerturik)
- Aixkidea, ta, bazituela... kuadrille beño, itxean saldu zituela denak, bezperan salduek; ahora, Iruñera? entregatzera.

2. Politika

2.1. Iparraldeko frontearen soldadu

- **Hizlaria(k)**: Ziganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ODI-001/008
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Anaia hasieratik joan zen gerrara. 37ko apirilean eraman zuten bera. Bilbo hartu zutenean iritsi zen frontera, eta gero Santander, Asturias, Leon... Gerra amaitu arte.

Transkripzioa

- Lau urte gutxiago.
- Nere anaie, etxea ezkondu zena, joan zen lenda bixko urtean, ta eretsi zien Bilbauraino, neguen. Ta neguen gelditu zien. Ta ni el 37, el 30 de abril joan nitzen Iruñera. Deitu ziaten... joan beharko!
- A! Bestela...
- Aite ta ama orduen ere bakarrik itxean ta...
-Triste.
-Triste ta... libretu zuten bere etxia, biño gutxi, denbora gutxi, harrapatu zigun kintek urte erdi batengatik.
- Ta... zer izan zan, gogorra?
- Ze... gero, gu hasi giñen Bilbaotik. Bilbao hartu zutelaik, gu Iruñen egon giñen instrukzioa ikesten. Ta eman ziguten gero Bilbao hartzeako Otxandianora ta Otxandianotik hartu zutelaik Bilbao, Bilbaure joan giñen, gero Bilbauko karriken instrukzioak ikesten. Ta gero handik atera ziguten ya Santander, Asturias...
- Santander, Asturias...
- Y León.
- Ta Leon be bai?
- Akabatu artio.

2.2. Ebrotik Gironaraino, eta handik etxera

- **Hizlaria(k)**: Ziganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ODI-001/010
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:13:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Ebro ibaia zeharkatu eta gero, Bartzelonarantz jo zuten. Han desfilatu, eta etxera joateko baimena emango zietela uste

zutenean, Gironaraino jarraitu behar izan zuten, Roses-eraino.
Kataluniako frontea amaitu zenean, etxera itzuli zen aldi baterako.

Transkripzioa

- Ta bere...
- Ebro. Handik sartu giñen ba, de Lerida gero, Cataluña...
- Kataluñara, Kataluñara, hori da bai.
- Por diciembre ahí.
- Aja! Ebron.
- Atera giñen gu de Lerida a Bartzelona.
- Bartzelonara.
- "Este... ¿cómo se llama?... Savadell".
- Savadell, bai, gogoratzen duzu e!
- "Antes de llegar a Bartzelona".
- Bai, bai, bai.
- "Al otro día a desfilas a Barzelona, a las Ramblas y pensando que nos iban a dejar, un poco allí"...
- Bukaera zelakuan...
- "Enseguida comer y tirar pa'lante".
- Baiña gero laister...
- Ta gero pastu giñen "por Gerona, por la mitad de Gerona, hasta el puerto de Rosas". Y allí, handik igorri ziguten permisuakin.
- Handik permisuakin, etxera?
- Beño...tortzeko gaixki, ez baitzen trenak eta denak geldituik eta...gaixki ibili giñen.

2.3. Goseak gerra amaieran

- **Hizlaria(k):** Zíganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** ODI-001/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gosea. Cartagenan ere ogi gabe egon ziren. Madrilera heldu zirenean, ogi oso bat eman zioten eta dena jan zuen ekinaldi batean.

Transkripzioa

- Gero gosea.
- Gero gosea, gose haundixa.
- Gero gosea gero, ogie ere falta. Cartagenan ere ogirik gabe egon giñen. Ematen ziguten bollo txikitxo bat "de arroz, pan de arroz". [Ahora es...].
- Ta zer, goxua?
- "Hasta el otro día".
- Arroz ogia goxua? Bai?
- Goxua bai, baiño gutxi. Gero handik heldu giñelaik, etorri giñen lizentziazko Bilbaura buelta, hortik atera giñen ta buelta. Zea, hor, Madrilgo estazionean, ogie.
- A bai, e? España dana ezagutuko duzu?
- Hartu ogi bet eta raso, jatea!

2.4. Asturiasko Pajares inguruan, hotzak akabatzen

- **Hizlaria(k):** Ziganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** ODI-001/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:17:36. **Bukatu:** 00:18:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerratean, Pajares mendate inguruan ziren irailean, eta sekulako hotza pasatu zuten. Ez omen zen ezta zuhaitzik ere hazten.

Transkripzioa

- Pastu giñuen Aragon.
- Aragon...
- Hotza. Asturias...
- Bai, e?
- El puerto Pajares.
- A bai? Hotz...
- Buoo! Septiembre, septiembre...
- Setienbrien hotz?
- "Helaos de frío"...
- A bai? Elurra?
- Gelditzen zien...
- Izoztuta.
- "Sin nada, sin habla".
- A bai, e?
- Eman ziuten mendi bat arrunt alora, ta, han, txabola ezin eiñez, ze kosta zaike(g)un! Danak enfadatuik, hasi lotzen ta haixiak botatzen zigun, a la mierda.
- A bai e?
- Gutxi egon giñen, hiru egun, biño, hiru egun pastu ta, hara zerta espero... inor ere. Ez zen belarraik ere. Ez arbolik ere. Arbolak izan ezkerro, sue iten giñuen. Ein baziaken en algunos sitios. ...Ai-ai ama! Ze kalamidadia!
- Kalamidadia e?

2.5. Anaia Ameriketara, Afrikako gerrari ihesi

- **Hizlaria(k):** Ziganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** ODI-001/018
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- **Laburpena:** Anai-arrebetatik gazteena da bera. Berak lau urte zituelarik anaia zaharrena Ameriketara joan zen Afrikako gerrari ihesi. Nola aldatu den mundua harrezkero!

Transkripzioa

- Anai bat joan zen, ni gazteena.
- Zu gazteena? Zenbat anai-arreba?
- Joan zen Ameriketara, tio bat bagiñuen. Anaie eaman, anai bat, zea, harek eraman zituen Ameriketara.
- A, bai?
- Zeatik [genuen también] gerra Afriken, zegoen halako gaixtoa, ta eman zituen, zea oroitzen naiz nola joan zen, ez baitzen oaindik ez autorik eta ez [...]. Ta orain nola dago? ¡Qué cambio!
- Hori bai!
- Orain, ezin kabituz!
- Orain ezin kabituz, hori da, bai bai...
- Ai-ai ama.! Hoi kanbioa!

3. Euskara

3.1. Maisu euskaldunak egurra euskaraz egiteagatik

- **Hizlaria(k)**: Ziganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ODI-001/020
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:22:01. **Bukatu**: 00:23:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolan erdaraz eta doKtrina, berriz, euskaraz apaizarekin. Umetan ez zekiten batere erdararik. Bere gurasoak eta herriko maisua herri batekoak ziren, Eritzekoak, eta elkartzen zirenean euskaraz egiten zuten, baina gero maisuak jo egiten zituen eskolan euskaraz entzunez gero.

Transkripzioa

- ... komadrona...
- Aaaaa! Komadrona lana!
- Como comadrona, entonces [... etxia joaten...]
- Etxian, etxian izaten ziren. Eta eskolan zuk erderaz ala euskeraz hitz egiten zenuen?
- Eskolan erderaz.
- A,erderaz. Bazenekien?
- Gero dotriña ematen ziguen apezak eta harrek euskeraz.
- A bai!
- ... zartakuak, ala! Kauen.
- Ta nola moldatzen ziñen erderaz? Erderaz nola, ondo? Lau urtekin ondo erderaz?
- Gure garaian segiduan euskeraz hasten ginen, denbora hartan, ez baitzen, ez baikenekien batere guk erderik.
- Erderarik bapez.
- Dena euskera. Gure aita ta ama, hasta maestrue... [herri bateko... noski], Eritze edo horkuak, juntatzen zien ta euskeraz. Ta gero eskolan, palo.
- Makila-saldia?
- Makilak geuk karri kanpotik, ta gero [eskuan ematen], kask!
- Euskeraz hitz egiteagatik? Hori gaiztua, e! Makurra!

3.2. Eskualdeko euskara, antzekoa

- **Hizlaria(k)**: Ziganda Ostitz, Mariano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ODI-001/024
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:25:22. **Bukatu**: 00:26:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Berdintsua omen da Lantzeko eta Latasako euskara. Labaien aldera aldatzen da, baina berak denei ulertzen die. Bera gaztetan herriz herri zebilenean emakume askok ez omen zekiten erdaraz.

Transkripzioa

- Lantzeko euskera eta hemengua, berdinak ala diferentiak?
- Igual kasi, si. Kanbiatzen da Labaien ta hoiek ya pixko bat, biño, nik ya entenditu beti.
- Zuk ondo ententditzen dituzu.
- Ez, ez. Lehenao oainik ... karo urteak joaten dire, biño [Gorritin] ni hasi nintzen saltzen, [oaindik] emakumek ez zakiten eusk.. erdera.
- A ez?
- Bat(e)re. Nerekin kontent.
- Horixe, kontent.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. San Urbano eguneko giroa

- **Hizlaria(k)**: Larraia Etxaide, Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ODI-004/002
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:02:25. **Bukatu**: 00:04:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Gaskueko San Urbano eguneko giroa. Apaizaren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Gaskuko San Urbano famatua da hemen, ez?
- Bai, bai, bai, bai... oräi konpondue da! baduu apez koxkor bat oai torri berrie ta, lengo, lenengo apezai ken diote? ta berak, telle-... telletue berri ein dio, ta... bobedagaiñe, neski, konpondue du, ta oain eskia, eskumuturre autsii tauke, eskaleratik... bota dena, altxatu men e.
- Hara, erori, e?
- Bai, erori men da.
- Eta nongoa da apez berri hori?
- Ori... Estella erriköa.
- (Laguna:) Abarzuza.
- Orduan ez da euskalduna; eta zein herritan dago?

- E... Iruñeti tortzen da, Iruñeti tortzen da yayetan.
- Meza ematera eta?
- Iru erri baitu emen: au, Erripekua ta Latasakua, ta apez pollite da.
- Eta nola egiten zen lehen San Urbano eguneko festa? leku aunitzetatik etorri eta paratzen zituzten beren tendereteak eta hola, ezta?
- Bai, bai, aunditz; orai ere bai.
- Zer gauzak paratzen zituzten? haizkorak eta zer bertze?
- Denetaik, aizkorak eta yoaliak eta... aunitz gautze!
- Aber zer bertze, ia oroitzen zaren...
- Umerrie ere bai!
- Hori jateko...
- Yateko, et'taberna at, ta gero karameluak eta oiek... baëa arfat (?), badago neski Ramona, or men tzen aurten ere, orei... duena...
- (Laguna:) Iruñekoa da ori, e?
- Bada berrogeitamar urte, bai? ba, igual? ibiltzen dela emen, egin tzuen lizenzia ori, al valle, unguru oi... mutikuek erraunte, or tzela aurten ere.
- Eta meza-eta egiten zen, ezta?
- Bai, bai...
- Eta euskaraz konfesatu ere bai, ez?
- Bai, denetaik, denetaik. Oi, euskaraz oräi iteunte? meza nagusie ere bai, euskaraz, bai.
- Baina etorri berri horrek ez du euskaraz jakinen...
- Ez, orrek ez; amabietan neski zen, meza nagusie? ta... euskaraz men tzen, gure etxequandria an tzen, semia're an tzen, bai...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Latasa eta ingurua guztiz euskalduna bere gazte denboran (ODI-001/001)

Latasa herri guztiz euskalduna zen bere gazte denboran, eta inguruko herri gehienak ere bai. 100 urte ditu Marianok.

2. Herriz herri San Urbanorekin (ODI-001/006)

Asko maite zuen jendeak. Berueteraino joaten zen saltzera bizikletan. Gero San Urbano hartu zuen herriz herri ibiltzeko, gogoz kontra, apaizak erdi behartuta. Baina sos batzuk ateratzen zituen.

3. "Los nacionales no entrarán en Bilbao hasta que el gato coma este bacalao" (ODI-001/016)

Esaera: "Guerras tengamos, pero no las veamos". Eta Bilbon aurkitu zuten pintada eta marrazkia (katua bakailaoa harrapatu ezinik): "Los nacionales no entrarán en Bilbao hasta que el gato coma este bacalao".

4. Orain euskara "nondik ikasiko" (ODI-001/022)

Lehen ez zuten euskararik entzun nahi, eta "orai nundik ikasiko ote". Lehen leku askotan egiten zen euskaraz baina orain ez.

5. Odietako Gaskuen, San Juanetan, sua egin eta "Urrin belar" leloa (ODI-007/001)

San Juan bezperan sua egiten zen. Gero, haren gainetik salto egin eta "Urrin belar, sarna fuera, onak barnera, gaixtoak kanpora, San Juan bezpera" esaten zen.

6. Gelbentzun belarrak erre eta hautsak abereen artean bota (ODI-008/001)

San Juan bezperan sua egiteko ohitura. Gainetik salto egin eta "Sarna fuera" esaten zuten. Belarrak bedeinkatzen ziren eta atarian zintzilik zituzten ferretan ipintzen zituzten. Bedeinkatutako belarrak erre egiten ziren eta hauts hura animaliei botatzen zitzairen.

7. San Juanetako ohiturak Erripan (ODI-009/001)

San Juan bezperan etxe bakoitzak bere sua egiten zuen atarian. Suaren gainetik salto egitean zer esaten zuten. San Juan egunean iratzeak bedeinkatu eta hurrengo urtean sutan erretzeko gordetzen ziren.

8. Aingiriturriren aipamena eta Burdindogiko ermitaren berri (ODI-009/002)

Aingiriturriko ura ona omen zen sarna kentzeko. Burdindogiko ermita. Aita Gaskuekoa zuen; unai ibiltzen zen, ganadua zaintzen.

9. Ziaurritz: San Juanetako oroimen urrunak eta Aingiriturrirako joera (ODI-010/001)

San Juan bezperan sua egiteko ohitura. Aingiriturriko urarekin fedea.

10. Anotzibarko herria, San Juanetan, Aingiriturrira (ODI-011/001)

San Juanetan Aingiriturrira joateko ohitura. Hango ura sendagarria zela zioten.

11. "Txiribiri" Urteberriko kanta Latasan (Odietan) (ODI-012/001)

Urteberri egunean kantatzen zen kanta: "Txiribiri, txakoneko, Urteberri eguneko...".

12. Errege-egunaren bezperako zintzarri jotzea Latasan (Odietan) (ODI-012/002)

Errege egunaren bezperan zintzarriak jotzeko ohitura.

13. Urteberriko "Txiribiri" kanta ezaguna (ODI-013/001)

Urteberri egunean kantatzen zen kanta. Eskean irteten ziren eta intxaurrak, gaztainak, pikuak... jasotzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com